

ALKIZAko

TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.



Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?

5
Helburu
estrategiko


80
Ekintza

Udaleko eta
eskualdeko
12 eragile
ezartze-
lanetan

Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **baxuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik** dauden eragile-kopurua ere lurraldeko batez bestekoa baino **baxuagoa** da.




Nolako izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%16a ezarri da bere 2. urtean

%4ko hazkundera 2014 -2015 epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **desiragarria den helburuko balioarekiko urrun** kokatzen da. Horrez gain, Alkizako Planaren garapen-maila **lurraldeko batez besteko balioaren azpitik** kokatzen da.




Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Adierazgarria da **ekintzen gehiengo oso altu bat hasi gabe edo hasita** egotea 2015ean (Planeko ekintza guztien %94a, hain zuzen ere).

Hala ere, 2014tik 2015era, behera egin du hasteko zeuden ekintzen kopuruak. Bestalde, Alkizako Ekintza-planaren 2. urtean aurreratua edo amaitzen zeuden ekintzak Planeko ekintzen %6ra heldu dira (2014 urtean, aldiz, ekintza guztiak hasi gabe edo hasita zeuden).

TEPren ezarpen-maila



2015ean amaitzear edo aurreratuta zeuden ekintza adierazgarri batzuk:

1.3.2 Alkiza eskualdeko beste herriekin konektatzeko garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko beharrezko pausuak ematea, ibilgailua pribatuaren aurrean lehiakorra izan dadin (ordutegia, maiztasuna, ..).

2.2.4. Hernio Gazume KBE-aren Gestio Planean jasotako eta udalerrian aurkitzen diren habitaten babes eraginkorraren aldeko neurriak, proiektuak eta ekintzak ezartzen jarraitzea.

3.1.4. Bai araztegi biologikoaren zein hobi septikoen bitartez arazten diren uren jarraipen sistematizatua egitea.

4.2.2. Herri eskolarentzako eraikin egokia lortzeko pausuak ematen jarraitu.

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

3.1.5 Hornitutako uraren kalitate ona bermatzen jarraitzea eta EKUIS sisteman datuak eguneratuta mantendu.

2.1.3. Alkizan biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspuntutik interesgarriak izan daitezkeen gainontzeko eremuak identifikatu eta hauen babesa sustatzea.


3.1.7. Alkizan euri pasarteen ondorioz gainezka egiten duten erreken egoera aztertu eta arazoari irtenbidea eman

4.3.1. Alkizako euskararen erabileraren kalitatea hobetzeko herritarrek antolatutako ekimenak lagundu.

4.3.2. Euskara Plana egitea.

Ildo estrategikoen arabera ezarpen-maila

Ezarpen-maila %



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

Natur baliabideen erabilera, klima aldaketa, ingurumen inpaktua: %11ko ezarpen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Uraren kudeaketa eraginkorra
- Herriko hondakinen bilketa efizientea
- Energiaren kontsumoaren dependentzia murriztu eta kutsadura ekiditea
- Lurraren erabilera: kanpoko elikagaien dependentzia murriztea
- Berotegi efektuko gas isurien zenbaketa eta jarraipena bultzatzea
- Klima-aldaketaren aurkako borroka planifikatzeko tresnak bultzatzea eta ezartzea

Herriko natura balioak kontserbatu eta ezagutaraztea: %15eko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Hernio Gazume eremu babestuaren kontserbazioa bultzatu eta inguruko eremuekin dituzten loturak bermatu
- Bertako espezie eta habitaten babesaren alde egitea
- Alkizako paisaiaren kontserbazioa eta landa inguruneari lotutako jardueren eta kontserbaziorako neurrien arteko oreka bilatu

Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE BIDE
NAGUSIA **GAIKAKO
HERRI-BATZARRAK**
DIRA BAINA EZ
2015EAN EZ ZIREN
ANTOLATU

PARTE HARTU OHI
DUTEN ERAGILEAK:
**UDAL-HAUTETSIAK,
GAIKAKO TEKNIKARIAK,
BANAKAKO
HERRITARRAK**

2015 URTEAN EZ ZEN
AGENDA 21EN
PARTAIDETZA-
BILERARIK
ANTOLATU

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.alkiza.eus gunean eskuragarri)

ITZA ZINDUN UPIA
ALKIZA

harremanetarako eu | es
Bilatu...

UDALA ▾ UDALAREN ZERBITZUAK ▾ ALKIZA EZAGUTU ▾ AGENDA 21 MULTIMEDIA ▾ ALBISTEAK ZER HOBETU DAITEKE?

Alkiza ezagutu

Berriak

2016-02-06
Bulego ordutegia: abuztua
Alkizako udalak udan ordutegia aldaketa izango du

Lotura interesgarriak

- > Helbide eta telefonoak
- > Zerbitzu telematikoak
- > Zer hobetu daiteke herrian?